

## **Networking berezia: otsailaren 23ko GetxoMeetingaren berri ematen dizugu**

Ekintzaileentzako hamabost egunez behingo topaketa horietan, beti egiten da *networkinga*, zeren eta kontaktu berriak egiten dira horietako bakoitzean, negozio guztien aukerak areagotuz.

Azkenengoan, arreta berezia eskaini nahi izan genion gai horri; beraz, saio zehatza antolatu genuen, soilik kontaktu eraginkorrak sortzeko.

Horretarako, aurkezpenaren ostean –zeinean irudimena askatu behar izan zuten–, parte-hartzaileek elkarrekin landu zituzten galdera honetarako erantzunak: Zertarako balio dute kontaktu berriak?

Bada, horrela, elkarriketa sortu zen, eta kontaktu profesional berri batek ematen dituen aukerez jabetu ziren bertaratutakoak. Hona hemen bildu genituen ideiak, saioan egon zen GetxoMeetingeko taldearen ekarpenak:

- Bezeroen zorroa handitzeko.
- Hornitzaile hobeak lortzeko.
- Ahotik ahora zabaltzeko.
- Bada ikasteko aukera.
- Ezagutzak gehitzeko.
- Hazkundera ekarri dezake.
- Sarean lan egin daiteke eta, hala, eremu zabalagoa hartu.
- Espezialitateak areagotzeko.
- Nork bere enpresaren beste ikuspegi bat izateko (eta emateko) aukera dakar.
- Kostuak murrizteko balio dezake.
- Negozio-ildo berriak sortzeko.
- Proiektu handiagoak abiarazteko.
- Merkatu bat hobeto ezagutzeko.
- Hobetzeko nola ematen dudan jakitera zertan dihardun nire enpresak.

Jarraian, binaka egin genuen lan, hainbat dinamika baliatuta eta txandaka. Zenbait elkarriketa egin ondoren –kafea, pastak eta guzti hartu genituen–, elkarrekin partekatu genuen zer ezagutu zuen bakoitzak bere solaskideari esker. Oso *feedback* interesgarria sortu zen, eta partekatutako ekarpenek gainerako parte-hartzaileei lagundu zieten hobeto ulertzen zer egiten duen bakoitzak.

Esperientziaren alderdirik interesgarriena hauxe izan zen: bi ordutan –bertaratutakoek ongi aprobetxatuak–, lotune anitz eratu ziren, asko ustekabeak.

Bertaratutakoak "harritu" ziren sortutako giro onaz eta topaketaren probetxuz.

GetxoMeeting bakoitza desberdina da, baina, guztietan sortzen ditugu dinamikak elkarriketa emankorrak sortzeko eta, horien bidez, oztopoak erraz gainditzeko, motibazioa eta elkar ikaskuntza sustatuta. Hau da, saihesten ditugu “entzutera” etortzeko diren ereduak, ekintzaile eta enpresariak aktiboki parte hartu dezaten elkarriketetan, zeinek ahalbidetuko dieten beren enpresetan aurrera egitea.

Etorriko zara hurrengo saiora? Martxoaren 9an izango da eta, ohi bezala, beharrezkoa da izena ematea. Anima zaitetz.